

noaua



JOSEBA TAPIA: "BESTE MODU BATERA PREPARATU DITUGU TAPIA ETA LETURIAREN KANTUAK, METALEZ ETA AHOTSEZ LAGUNDURIK"

Larunbatean Aginagako Eliza Zaharrean arituko dira, NOAUA! Kulturaldiaren baitan / 16-17

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Nekazariak eta abeltzainak protestan, bizimodu duinago baten alde / 03




NOAUA

Aingira berreskuratzeko plan integrala aurkeztu du Foru Aldundiak / 05



ION MARKEL SAEZ DE URABAIN

Igandean Sutegin, 'Ztandap' umorezko binakako bakarrizketa saioa / 08



NOAUA

Mikel Arroyo eta Jose Mari Etxebeste, bolako Gipuzkoako txapeldunak / 16



Alsazia eta Oihan beltza

IRTEERA 2024ko maiatza

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

noaúa

jarraitu gure sare sozialak



www.noaúa.eus

ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 24-25

OTSAILAREN 7-tik 23-ra



Landaberri eraikina DBH 1-2

Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94

ATE IREKIAK

otsailaren 7an (17:30-18:30)
Landaberri eraikinean



www.oriarte.eus



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa

Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92

12-18 urte
DBH-Batzilergoa
Jangela zerbitzua
Euskal kultura eta
kulturartekotasuna bultzatuz

Oinarrizko sektore duin baten alde



"Baserririk ez, jatekorik ez" irakurri zitekeen traktore honen muturrean.



Burokraziak eta prezioek itota bizi direla salatu zuten asteleheneko elkarretaratzean.

WhatsApp bidez egindako deialdi batek piztu omen zuen asteleheneko mobilizazioa. Andoainean goizeko 7:00etan batu ziren hainbat baserritar

eta Urbilera jo zuten, N-1 autobidean ilara luzea sortuz. 10:00ak aldera, Urbil merkataritza gunea osoa inguratu zegoen. Traktoreak, ka-

mioiak, furgonetak, autoak... Ikurrinekin eta aldarrikapen orriekin apainduta zeuden ibilgailu denak. Zarauztik abiatutako zutabea iritsi ze-

nean, Donostiara abiatu ziren. 12:00etan elkarretaratzera egin zuten Gipuzkoa plazan, Foru Aldundiaren egoitzaren aurrean.

Garbigune mugikorra, Aginagan

Otsailaren 15etik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Otsailaren 22an osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

Otsailaren 24an, 1956an jaiotako kinto bazkaria

Otsailaren 24an larunbata, Sekañan elkartuko dira eguerdiko 14:00etan. Izena emateko telefono zenbaki hauek batera deitu behar da:

- 687 706 363 (Mertxe).
- 695 780 696 (Blanca).

Otsailaren 20an amaituko da izena emateko epea.

1952an jaiotako bazkaria apirilaren 27an egingo da

Apirilaren 27rako antolatu dute kinto bazkaria. Artzabalgo jatetxean batuko dira. Otu-runtza eguerdiko 14:00etan hasiko da. Apirilean egingo bada ere, izena emateko epea zabalik da honez gero. Horretarako, deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Sagastien neguko kimaketari buruzko ikastaroa

"Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketari" saioa antolatu du Alkartasuna kooperatibak otsailaren 23rako. Arratsaldeko 15:30etik 18:30era batuko dira Potxoenean. Izena aurrez bideratu behar da telefonoz (943 361 114) edo alkartasuna.eus web orrialdearen bidez.

noaua

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

'Jainkoa-Zientzia-Frogak'

Zientziak Jainkoaren existentzia froga al dezake? Galdera horri erantzun nahidiote Michel-Yves Bolloré eta Olivier Bonassiesek, bi ingeniari frantsesek. Duela urte pare bat idatzi zuten 'Jainkoa-Zientzia-Frogak'. Espainiako liburu dendetara urrian iritsi zen. Beren ustez nahikoa arrazoi zientifiko badago kreatzaile baten existentzia frogatzeko. Sekulako arrakasta izan du bere burua hain laikotzat daukan Frantzia batean: 220.000 ale salduak, 200 hitzaldi, telebistan debate ugari.

Horrenbesteko ospearen sekretua galdetu dietenean, kontua ez dela hori erantzuten dute. Sokratesen esaldi bat aipatzen dute: "Zuzena den zerbait eza gutzen baduzu eta ez baduzu zabaltzen, injustua zara". Baldin badakigu Jainkoa eta zientzia ez direla bateraezinak eta ez badugu dibulgatzen, ez ginateke justuak izango.

Hogeigarren mendeko aurkikuntza zientifikoek gure munduaren ikuspegia guztiz aldatu dute. Gure ustetan, fenomeno horrek unibertsoaren sortzaile, diseinatzaile edo kreatzaile bat eskatzen du, diote.

Teologo batzuek aurpegira bota diete zientifikoki Jainkoa ez dela frogatu. Horren gainean, beraiek argi utzi nahi dute beren asmoa ez dela Jainkoaren froga zientifikoak eta matematikoak ematea. Baizik, susmoak, pistak aurreratzea, irakurleak gai honi buruz iritzi informatua



Liburuaren egileen esanetan, "nahikoa arrazoi zientifiko badago kreatzaile baten existentzia frogatzeko".

eta ahalik eta osatuena eduki dezan. 'Froga' hitza zentzu oso zabalean erabiltzen da. Azken batean, sinestea edo ez, hori norberaren erabakia da. Zuk ezagutu dezakezu Jainkoaren existentzia, baina berari atxikitzea zuk aukeratzen duzu.

Kritika zorrotzak izan ditugu, baina baita oso positiboak ere, bai zientzialarienak eta baita teologoena ere. Gure liburua Robert Wilson Fisikako Nobel sariak berrikusi du. Bera agnostikoa dela esan behar da.

**"LOUIS PASTEUR-
EK ESATEN ZUEN:
"ZIENTZIA GUTXIK
JAINKOAGANDIK
ALDENDU EGITEN
GAITU; ASKOK,
ALDIZ, BEREGANA
GARAMATZA"**

Zerk bultzatzen ote du horrenbeste jende liburu hau irakurtzera? Egileek diotenez, sinestun asko aurrerapen zientifikoaren alboan gutxietsita bezala sentitu da. Bazirudien, zientzian sinesten bazenuen, Jainko mundu hori aldendu egin behar zenuela, kanpoan gelditu behar zuela, alegia. Liburuaren ikuspegi zabal hori aurreiritzirik gabeko jende askori interesatu zaio: ez kristauei bakarrik, baita judutar, musulman eta agnostikoei ere.

"Erljioa askotan zientziaren kontra egon da. Galileoren kasua gogorarazten dizuet: atzera egin beharra izan zuen bere teoriarekin. Zer diozue?". Bai, jende tradizionalarentzat ez da erraza izan zientziaren ikuspegi berriak onartzea. Gizona ez zela munduaren zentroa pentsatzea irain bat zen askorentzat. Edo tximinoagandik gatzela. Azkenean gehien-go handi batek onartu du zientziak erakutsi diguna. Liburugileen konklusioa da azken iraultza fisikoen (Big Bang-a, fisika kuantikoa, biologiaren komplexutasuna) bi ondorio dituztela: unibertsoak hasiera bat izan duela eta amaiera ere izango duela eta hasiera hau unibertsoatik at dagoen indar batek eragin zuela. Erljio guztietako Jainkoaren definizioa hurbiltzen da ideia hau.


Louis Pasteur-ek esaten zuen: "Zientzia gutxik Jainkoagandik aldendu egiten gaitu, askok, aldiz, beregana garamatza". Eta A. Einsteinek: "Bada indar bat beste guztiak bere baitan hartu eta gobernatzen dituena, unibertsoaren fenomeno guztien atzetik dagoena. Indar unibertsal hau Maitasuna da".

Herriko festak, ekainaren 28tik uztailaren 2ra

Usurbilgo Jai Batzordeak iragan astean egindako urteko lehen bilkuran, datozen Santixabelak noiz hasi eta bukatuko diren erabaki zuen. 2024ko festak ekainaren 28an hasi eta uztailaren 2an amaituko dira; ostiralek asteartera luzatuko dira; beraz, bost festa egun izango ditugu. Usurbilgo jaien egunak finkatzerakoan beti uztailaren 2a hartzen da kontuan, hauxe izaten baita udalerrri mailako festa egun nagusia, iaz izan ezik; izan ere igandearrekin egokitu zen eta biharamuna, uztailaren 3a izan zuen Usurbilek gorritz seinaturalariko jai eguna. Erabakiok udalbatzak hartzen ditu urtero. Esaterako, iazko ekainean adostu zuen aurten, ohi bezala, oraingoan bai, uztailaren 2a izatea Usurbilgo jai eguna.

Astehenean, bilkura berri bat Datorren bilkurarako hitzordua finkatua du Jai Batzordeak; otsailaren 19an bilduko da berriz. 18:30ean, Potxoenean.

Gogoan izan, Usurbilgo festei lotutako erabaki guztiak bilgune horretan hartzen dira. Batzorde honetan, jaien antolaketan ekarpenak egin nahi dituzten norbanako nahiz eragileek tokia izaten dute. Festen antolakuntzan lagundu edota ekimenak proposatzeko aukera izaten da. Bertatik bideratzen dituzte, besteak beste, egitaraua diseinatzeko lehiaketa edota txupinazioa nor jaurti erabakitzen laguntzeko herritarrei egiten dieten deialdia. Jai inklusibo, parekide, jasangarri eta parte hartzaileak sustatzen dituzte bilgune honetatik.



Aingira berreskuratzeko plan integrala aurkeztu du Foru Aldundiak

Aingiraren habitata hobetu eta "estuaria, padura eta ibai-sareko beste habitatak" lehengoratu nahi dira.

Aingiren kopurua gutxitu dela eta, aipatu espezie hau berreskuratzeko plan integrala aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere habitata hobetu eta "estuaria, padura eta ibai-sareko habitatak lehengoratzeko".

2009. urteaz geroztik indarrean den neurriari eutsiko

diote; aingiraren arrantzatzeak debekatua egoten segiko du. Horrez gain, "aurreikusten da Sepronak egingadako dekomisoetatik datozen angulekin birpopulatzeko lan bat egitea. Azken jarduerari Foru Aldundiak arrakastaz egin zuen 2018-2021 urteetan". 755.000 euro bi-



Aingiraren arrantzatzeak debekatua egoten segiko du.

deratuko ditu Aldundiak hobekuntza hauetara.

Lehengoratzeko helburu

Habitat hauek lehengoratzeko urrats gehiago ere eman asmo dituela iragarri dute Foru

Aldunditik, oztupoak desagerarazteko eta habitat horiek lehengoratzeko bidean aurrera egin ahal izateko, "ez bakarrik aingirentzat, baita gure fauna eta floraren parte diren beste espezie batzuentzat ere".

"Orbeldiko presaren eraispena bizkortzea eskatzen dugu"

EGUZKI TALDE EKOLOGISTA, ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA, NATURKON

Ibaietan gora doan espezie migratzailea da Europako aingira, eta angula da bere arrainkumea. Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren (NKNB) zerrenda gorrian sailkatuta jarraitzen du, "galtzeko arrisku larrian" kategorian, euskal balea, errinozeronte beltza, gorila edo orangutana bezala. Desagertzetestuinguru honetan, Xabier Arrutik, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko diputatuak, Batzar Nagusiek eskatuta, Gipuzkoan aingira europarra berreskuratzeko Plan Integrala (2024-2034) aurkeztu berri du. Bestalde, Aldundiak 2020an idatzi zuen Gipuzkoako Oztupoak Iragazkortzeko Plan Zuzentzailea (2020-

2035). Plan horrek 228 presatan esku hartzea aurreikusten du herrialde osoan, eta horietatik 114 Oria ibaiaren arroan daude (Usurbilgo Orbeldikoa barne). "Oztupo horietako gehienek -dio Planak- aingiraren goranzko migrazioari eragingo liokete, hau da, aingirak arroen erdiko eta goiko aldeak kolonizatu ahal izatea eragozten edo zailtzen dute". Era berean, Planaren arabera, presa horiek eragiten dituzten ondorioek -horietako batzuetan esku hartzen ari da dagoeneko- "aingirari ez ezik, funtzionamenduari eta erregimen hidrológico naturalari, ibai-ekosistema osoari eta osagai biologikoari ere eragiten diete. Irtenbiderik onena oztupoak eta presak erabat eraistea da. Ingurumen-irtenbiderik positiboena edo eraginkorra da epe ertain eta luzera, eta ibai-konexioaren erabateko

lehenatzea bermatzen du, bai eta ura pilatuta dagoen oztupoaren tartean ibai-habitata berreskuratzeko ere". Ulertezina bada ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2023an ezetsi egin zituen Eguzkik, Anerreka Ingurumen Elkarteak eta Naturkonek (Gipuzkoako talde ekologista eta naturalisten koordinatzailea) aurkeztutako alegazioak, eta erabaki zuen "interés publikokotzat" jotzea Plan Berezia, zeinak Oria ibaiaren ibilguan, zehazki, Usurbilgo Orbeldiko zentral hidroelektriko zaharrean, ur amilen kanal bat eraikitzea ahalbideratuko zuen. Baina horrek presa zaharkituak arrain-fauna migratzailearentzat dakarren oztupoa mantentzera behartuko luke. Are gehiago, lehen aipatutako Gipuzkoako Oztupoak Iragazkortzeko Plan Zuzentzailearen arabera, Orbeldiko presa

eraistea Oria biziberritzeko funtsezko helburuetako bat da, bokaletik ubidean gora doan arrain-fauna aurkitzen duen lehen oztupo handia delako. Izan ere, beren-beregi irakur daiteke bertan: "Orbeldiko presa txikia eraistea nabarmendu behar da [aurreikusitako jarduketan artean], bokaletik lehen oztupoa baita". Ez da ahaztu behar, ezta ere, Usurbilgo udalerriko Oria Ibairearen Paisaiaren Ekintza Planak (2016) "Orbeldi inguruko ingurumena eta paisaia lehengoratzeko proposatzen duela, abandonatutako eraikuntza kenduz eta presa botaz; izan ere, gaur egun, hori oztupo da iktiofaunarentzat, bai eta Oriako uraren fluxu naturalarentzat ere". Orbeldiko presa ur biziaren kanal bat egiteko mantentzea ez da inola ere koherentea aurkeztu berri den Aingira Berreskuratzeko Plan Integralak dioenarekin.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, beheka 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus



Tapia eta Leturia taldea Aginagako Eliza Zaharrean arituko da larunbat honetan. Gaueko 22:30ean hasiko da emanaldia. ARGAZKIA: @TAPIAJOSEBA

"Tapia-Leturiatarrak topera iritsiko gara Aginagara"

JOSEBA TAPIA TRIKITILARIA

Tapia eta Leturia bandak askoren memorian iltzatuta dauden kantak berreskuratu ditu, eta osagai eta berrikuntza ugari proposamen artistiko berria dakar.

Aspaldiko partez, Tapia eta Leturia taldearekin batera ari zara batetik bestera. Oker ez bagaude, itzulera honen lehen saioa izako ekainean izan zen. Aristerazuko (Aia, Gipuzkoa) erromeria denboraldiaren amaieran. Akaso hor piztu zen berriz elkarrekin aritzeko grina eta ondoren etorri dira gainerako kontzertuak? 2007an geldialdia egitea pentsatu genuen, nekatu bat hartuak geunden erromerietan

eta kontzertuekin. Gainera, nire bakarkako proiektu berriak sortzeko tarte behar nuen eta horri ekin nion. Gure alaba zaharrena jaio zen urte horretan eta aldaketa garaia iritsi zitzaigun. Dena den, eszenatokien nekeak ez zuten luzaroan iraun eta berriz ere tranpaldora igotzeko beharra berehala etorri zitzaidan. Dantzaldietan gozatzen eta gozarazten ikasi genuen; gozamina da jendea

dantzan jarri araztea. Leturia eta biok urte luzetan horretara

"2007AN NEKATU BAT HARTUAK GEUNDEN. BAINA LETURIA ETA BOK ITZULIKO GINELA BAGENEKIEN"

ra dedikatu gara eta berriro itzuliko ginela bagenekien.

Garai bateko kantak berreskuratu dituzue. Dena den, 10 musikariz osaturiko taldea igoko zarete Aginagako Eliza Zaharretan oholtza gainera. Musikari hauek zer nolako ekarpena egin diote Tapia eta Leturiaren erreperorioari?

Beste modu batera preparamu ditugu kantuak, metalez eta ahotsez lagundurik. Halako festa handi bat lortzen dugula esango nuke guztion artean. Aspaldiko nahia da horrelako soinu banda bat osatzea. Bagenituen erreferentziak gu bezalako dantza talde herrikoiena eta oso nahasketa interesgarriak egiten zituztenak tradizional dantzak eta moldaketa modernoekin nahasturik. Geroztik, ikasten eta probatzen jardun ondoren, azkenean ausartu gara eta hemen gatoz Tapia eta Leturia banda jantzi berriekin.

laz "itzuli" zinetetik hona, hainbat saio eskaini dituzue. Hortaz, sasoi betean iritsiko zarete Aginagara. Gustuko al duzu Eliza Zaharra? Festa giroa pizteko osagai egokiak ditu, ezta?

Gure amonak ni apaiz izatea nahi omen zuela jakin nuen eta hara! Azkenean sermoia eman behar dut Aginagako Eliza Zaharrean kar, kar, kar... Toki egokia dela uste dut, bai sonoritatez baita tamainaz ere. Kontzertu zenbait egin ditugu jadanik formatu honetan eta topera iritsiko gara Aginagara Tapia-Leturiatarrak. Ordu eta erdiko kontzertu erromeria bat osatuko dugu. Fandangoak eta arin-arinak dantzatu nahi dituenarentzat ere tarte bat egingo dugu; proban jarriko ditugu eskuak gora jasotzera ausartzen direnak.

Denboraren poderioz, Tapia eta Leturia erreferentzia handia bilakatu da musikari askorentzat. Emanaldiez gain, Tapia eta Leturiaren disko berriak aurreikusi al duzue? Ala emanaldietara bakarrik mugatuko da itzulera? Oraingo lehengo kantu zaharrek abiatuko gara. Gogoratu nahi ditugu garai bateko gure exitoak, denbora asko pasa denez ea lehen bezalako arrakastarik sortzen duten zuzenean. Norberak bere kantuen aldaerak egitea ariketa polita da. Berrikuntzek askotan jende berria erakarri lezaket (edo lehengoak uxatu...) Arriskua hartzea komeni da. Disko berriak etorriko den aurreikusitako goizegi da oraindik. Makinaria oliotatu behar da horretarako, eta horretan ari gara.

"ORDU ETA ERDIKO KONTZERTU ERROMERIA BAT ESKAINIKO DUGU AGINAGAKO ELIZA ZAHARREAN"

NOAUA! Kultur Elkarteak eta Aginaga Eliza Zaharra elkarguneak antolatu dute larunbat honetako emanaldia. Azkenaldian halako sinergia sortu da herriko taldeen zein kulturzaileen artean. Kultur-gunea da horren lekuko. Usurbilen garatzen ari den mugimendu hau jarraitzen ari al zara? Ze inpresio duzu?

Sortzaile talde interesgarria dago Usurbilen, giro ona elkarren artean, lanerako gogoia, irudimena eta ausardia ere ez da falta. Bileretan izan naiz eta gustatzen zait markatu duten dinamika.

Zalantzak badituzte eraikin berriari buruz baina hasi baino ez gara egin eta ikusiko dugu zer bide egiten duen. Nolanahi konfiantza ematen didate gazte horiek, beraien ondoan ibiltzea gustatzen zait.

Larunbatean, Eliza Zaharrean

Otsailak 17 larunbata

- 22:30ean, Aginagako Eliza Zaharrean.
- Sarrerak alde zurrik salgai 12 eurotan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 10 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.
- Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.

"SORTZAILE TALDE INTERESGARRIA DAGO USURBILEN. GIRO ONA, LANERAKO GOGOA ETA IRUDIMENA"



Tapia eta Leturiaren "lehengo kantu zaharrak" ekarriko dituzte gogora. @TAPIAJOSEBA



"Sonoritatez eta tamainaz toki egokia da Aginagako Eliza Zaharra". @TAPIAJOSEBA



Fandangoak eta arin-arinak dantzatzeko aukerarik ez da faltako. @TAPIAJOSEBA



Sarrerak usurbilkultura.eus webgunean eskura daitezke. @TAPIAJOSEBA



'Bizkarsoro' filmeko pasarte bat.

'Bizkarsoro' ikusteko aukera aparta

Josu Martinezek zuzendu duen film honen grabazioan Baigorriko (Nafarroa Beherea) herritarrek parte hartu dute.

Existitzen ez den herri batean, bost istorio erreal, 1914tik 1982ra gertatuak, ahozko lekukotzetan eta idazleen tes-

tuetan oinarrituak. Haietan barna, XX. mendean zehar Ipar Euskal Herriko herri ttipi batek bizitako aldaketa sozia-

lak agerian geratuko dira. Hizkuntza baten erroizte eta hurrentzea. Eta bizirik irauteko borroka.

Josu Martinezek zuzendutako pelikulak euskararen aurka-ko jazarpenaren eta euskaldunen bizitzeko gogoaren historia kontatzen du. "Gurea zapalkuntza baten historia da, eta, hain zuzen, horregatik kontatu behar da", zinemagile bilbotarraren hitzak dira hauek.

Donostiako Zinemaldian estreinatu ondoren, herriz herriko bideari ekin zion urtarrilean.

'Bizkarsoro' filmaren proiektzioa eta solasaldia

Eguna: Otsailak 16 ostirala.

Ordua: 19:00.

Tokia: Sutegi.

Sarrerak: aldeztatik salgai 6 eurotan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4 eurotan eskuragarri, baina soilik NOAUA!ko egoitzan.

Nori zuzendua: helduei.

Otsailaren 24an, 'Toto' antzezlan

Sinopsia: Maik (Maitane) eta Joseluk (Jose Luis) Toto txakurtxoaren kustosia partekatzen dute. Toto galdu egin da Joselurekin zegoenean eta orain Maik ezin du imajinatu bizitza bera gabe. Maik eta Joseluk, modu intentsuan eztabaidatzen dute. Barrutik tragedia moduan bizi ohi diren eztabaidak, kanpotik ikusita, barregarriak eta komikoak suertatzen dira. Toto halakoxea da, txakur guztientzat egokia den bikote komedia. Sarrerak: aldeztatik salgai 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 8 eurotan NOAUA!ko egoitzan.

Otsailaren 25ean, 'Etxe bat' errezitaldia

- Testua, gidoia: Yolanda Arrieta Malaxetxebarria.
 - Kantak, soinua: Peru Galbete Labiano.
- Sarrerak: aldeztatik salgai 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 8 eurotan NOAUA!ko egoitzan.



Sutegin, 18:00etan.



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai bikotearen arma nagusia umorea da.

Igandean, 'Ztandap' umore saioa Sutegin

Binakako bakarriketa saioan zehar eguneroko kontuez arituko dira, "umorea eta generoaren filtoetik pasatuta".

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileak ikuskizun berri bat aurkeztuko dute Sutegin: 'Ztandap'. Aurreko

emanaldietan egin moduan, Martiarena eta Torregarai "betaurreko moreak jantzita" igo-ko dira oholtzara. Orgasmo

arrakala, maitasun erromantikoa, señoarak, elkarbizitza ... izango dituzte hizketagai horretarako, besteak beste. Kritika eginez, deseraikiz, barre eginez eta eginaraziz ezta-ndarazi, lehertu, nahi dituzte bazterrak.

Idoia Torregarai aurreko astean eskaini zigun elkarrizketan azaldu zigun moduan, "gure bizi esperientzietatik abiatuta egiten dugunez, pribatua publiko egiten dugu. Publikoko emakumeak gurekin identifikatzen dira eta hor sortzen den hori oso berezia izaten da. Oso ondo pasako dugu".

'Ztandap', binakako bakarriketa

- Eguna: Otsailak 18 igandea.
- Sutegi, 18:00etan.
- Sarrerak: aldeztatik salgai 6 eurotan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4 eurotan eskuragarri, baina soilik NOAUA!ko egoitzan.
- Nori zuzendua: helduei.

Desfile koloretsua eta bizia egin zuten Udarregi ikastolako ikasleek



Goiz parteko kalejira eta gero, ikuskizun apartak eskaini zituzten ostiral eguerdian Oiarde kiroldegian. Irudi gehiago, noaua.eus web orrialdean.

Udarregi ikastolako LH eta DBH zikloetako ikasleek eta irakasleek askotariko mozorroen azalean sartuta, Usurbilgo kaleetatik barrena desfilatu zuten ostiral goizean. Ezaguna duten koreografia dantzatzuz, lau haizeetara zabaldu zuten inauterietako giroa. Goiztiarrenak ordea, Haur Hezkuntzako ikasleak izan ziren.

Espaziora bidaia egin zuten Aginagako Eskolako haurrek



Aginagako Eskola Txikiko haurrak mozorrotuta inauterietako ikuskizunean, Eliza Zaharrean.

Espazioa hartu zuten gaitzat Aginagako Eskolako haurrek. Estralurtarrak, zientzialariak, astronautak... ez zen inor ere falta izan. Sketch txikiak egin zituzten haurrek espaziora egindako bidaia bat erakusteko: euskaraz zein ingelesez. Dantza eta antzerkia uztartu zituzten orduerdi inguruko ikuskizunean.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

EUSKADIKO
ITUN
BERDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko
Emakume Chef Onena.

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO
INDARTSUAGORIK**

www.indartsuagoak.eus



Herritarrak Urderekin batera frontoian dantzan.



Orbeldik ostiralean eskaini zuen ikuskizunak jende asko erakarri zuen.



Zumarte Musika Eskolako kideak. Inauteriei doinua jartzen.



Urde protagonista, kiroldegira iritsi berritan.



Burrumbazale txarangak Inauterietako kantak berritu zituen.



'Fauna' gaiak joko asko eman zuen. Mozorro festa oparoa izan zen.



Aztarrikakoek martxoko Gazte Eguna iragarri zuten Dema plazan.



Itzal erromeria taldeak girotu zuen Inauteri Jaiko gaua.



Fauna gertutik behatzen duenik ez zen falta izan Inauteri Festan.



Basakabiko artaldea Mikel Laboa plazaraino jaitsi zen.



Arrainak ere arrainontzitik kanpo aterarazi zituen larunbateko mozorro festak.



Itsaskiak ere lehorretik otsailaren 10eko Inauteri Festan.



Ardi eta artzainen koadrila ederra. Irudi gehiago noaua.eus atarian.



Festa girorako sarreren salmenta gune original askoa Inauteri Festan.



Gorritiren "showa" berritu zuen irudiko lagun taldeak.



Belaunaldi gazteenak dantzan egin zuen bat Orbeldiren kalejirarekin.



"Mondragon Unibertsitatean oso metodologia praktikoa erabiltzen dugu"

Marta Zalacain Sanchez donostiarrek 21 urte ditu. Ingeniaritza Biomedikoa ikasten ari da eta orain arteko esperientzia oso ona izan dela azaldu digu.

Herria: Donostia

Adina: 21 urte

Gradua: Ingeniaritza Biomedikoa

Zaletasunak: Musika entzutea, bidaiatzea, lagunekin eta familiarekin egotea, jatekxetara joatea, saskibaloian jokatzea.

NOAUA! Ingeniaritza Biomedikoa gradu 4. mailan zaude: zergatik aukeratu zenuen gradu hori eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Marta Zalacain Sanchez: Ingeniaritza Biomedikoa gradua aukeratu nuen, ibilbide berritzaile eta irteera askoko bat hartu nahi nuelako. Banekien ingeniaritza bat egin nahi nuela eta, biologia ere gustatzen zaidanez, Ingeniaritza Biomedikoa alderdi horiek

guztiak biltzen zituen gradua zela pentsatu nuen. Bestalde, Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen ingeniaritzetan duen prestigioagatik eta erabiltzen duen metodologia berritzaileagatik.

Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?

Oso ona. Gainera, ikasgelan talde trinkoa eratu dugu, eta horrek esperientzia guztia hobetzea ekarri du.

Zer metodologia erabiltzen duzue, nolakoa da?

Oso metodologia praktikoa erabiltzen dugu. Lauhileko bakoitzeko azken aste edo hilabeteetan PBLak egiten dira. Lauhilekoan emandako teoria guztia praktikan jartzen da proiektu horietan.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Metodologia, batez ere, teorikoa baino praktikoagoa delako, eta benetan ikasten duzulako. Eta, bestetik, DUALa, aldi berean ikasteko eta lan egiteko aukera ematen baitizute eta esperientzia gehiago hartzen duzulako.

"IKASGELAN TALDE TRINKOA ERATU DUGU, ETA HORREK ESPERIENTZIA GUZTIA HOBETZEA EKARRI DU"



"Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen ingeniaritzetan duen prestigioagatik eta erabiltzen duen metodologia berritzaileagatik". ARGAZKIA: MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Eta hobetzeko... oraintxe bertan ez zait ez bururatzen.

Etorkizunari begira zer asmo dituzu?

Oraindik ez daukat argi zer egin.

Ez dakit master bat egingo dudan edo zuzenean hasiko naizen lanean.

Udal liburutegiaren eskaintza datozen asteetarako

Xake topaketa, idazketa tailerra, liburu aurkezpenak eta ipuin kontalariak, udal liburutegiaren programazioan.

Otsailak 16/23, ostiralak, II. Xake Topaketa

Ordua: 17:00.

Otsailaren 16an: LH 1, 2 eta 3. mailakoei.

Otsailaren 23an: LH 4tik gorakoentzat.

Oharra: taldea oso handia baldin bada, martxoaren lein beste saio bat egingo dute. Bi saioak adinaren arabera antolatuko dira.

Izen-ematea: Sutegi udal liburutegia.

Otsailak 28, asteazkena, 'Azalerako ipuinak'

17:30 Azalerako Ipuinak, Sara-roa Bikandirekin.

Zehaztasunak: "Giro lasaia eta atsegina sortuko dugu

ukimena, ipuinak, poemak, kantuak, jolasak, liburuak... baliatuz. Entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena eta dastamena literaturarako ate ireki bat izan daitezke".

Iraupena: 40 minutu. Nori zuzendua: 0-3 urteko haurrentzat eta euren gurasoentzat.

Izen ematea: Sutegi udal liburutegian.

Oharra: plaza mugatuak.

Martxoak 4, astelehena, Ameli ipuin kontalaria

18:00 Ameli ipuin kontalariaren ipuin kontaketa saioa.

Nori zuzendua: 4 eta 5 urteko haurrentzat.

Iraupena: 45 minutu.



Sara-roa Bikandik 'Azalerako ipuinak' emanaldia eskainiko du otsailaren 28an.

Martxoak 5, asteartea, Idazketa tailerra Yolanda Arrietaren eskutik

18:30etan hasita, idazketa tailerra Yolanda Arrietarekin. 16 urtetik gorakoentzat.

Izen ematea: Liburutegian bertan.

Iraupena: ordu eta erdi.

Antolatzaileak: Sutegi, Etureta Euskaltegia.

Martxoak 20, asteazkena, liburu aurkezpena Iñaki Zabaletaren eskutik

19:00 Liburu aurkezpen-solasaldia: "Nazioa eta hizkuntza, Humboldttekin korrika" solasaldia. Iñaki Zabaletak "Nazioa eta hizkuntza Humboldtten pentsamenduan" liburua aurkeztuko du.

Iraupena: ordubete inguru.

Elkargunekoak, Oñatira bisitan

Anbulatorio ondoko zelaian kokatuko den Elkargunea diseinatzeko parte hartze prozesua abiarazi zuten otsailaren 3an Udarregi ikastolako jantzelan. Bigarren saioa, hilaren 24rako zegoen iragarria, baina larunbat honetara aurreratu dute. Hitzordu hau ez da ikastolan egingo. Izan ere, txangoa antolatu dute Oñatira. Bertako Eltzia egitasmoa eta Gaztelekua ezagutu ahalko dituz-

te deialdiarekin bat egiten dutenek. Goizeko 9:00etan jarri dute abiatzeko hitzordua, 13:30ean handik herrira itzuli asmo dute. Prozesu honen sustatzaileek ohartarazi dutenez, "izen-emate kopurua- ren arabera, autobusa jarriko da; bestela, auto partikularrekin antolatu beharko gara". Esteka honetan eman ahalko da izena: <https://form.jotform.com/240251531382043>

2. Etumeta Lehiaketa abian da

Iazko estreinako edizio arrakastatsua ondotik, Etumeta AEK euskaltegiak bigarren antolatu du txapelketa hau. Lanak aurkezteko epea jada zabalik duzue. Usurbilen errol-datuak egon edo Etumeta AEK euskaltegian matrikulatuak dauden 18 urtetik gorakoek parte hartu ahalko dute. Txapelketa honen oinarrien berri blogak.eus/etumeta-euskaltegia-ae-atarian jaso dezakezue.



18 urtetik gorakoentzat da.

Xehetasun gehiago, datorren aldizkarian.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
649 43 54 75
IT-ak egiten dira
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMA

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ARANKA BERRIKUNTZAK
Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
Igeltzeritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

"Treba Gurasoak" egitasmoko lehen saioa

'Treba Gurasoak' programak 134 hitzaldi eta tailer programatu ditu Gipuzkoako 65 udalerritan.

Haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzeko gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatzea xede duen Treba Gurasoak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren prestakuntza-ekimena Usurbila helduko da laster, Gaztelekuaren, Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkartearen, Udalaren eta Aldundiaren eskutik. Lehenengo saioa otsailaren 22rako iragarri dute 17:30ean Potxoenean. "Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: nola zaindu seme-alaben emozioak", hortxe iragarri duten saioa, Donna Apellanizek bideratuko duena. "Hitzaldi honen bitartez, seme-alaben emozioak kudeatzeko eta zaintzeko kontuan izan beharrekoa landuko dugu, horrela, familiaren osasun emozionala zaintzeko tresna sinple eta eraginkorrak eskuratuz". Teoria eta praktika uztartuko dituen hitzaldiaren bidez, helburuok bete nahi dira: "besteak beste, adimen emozionalari buruzko ezagutzak eskuratzea, emozioak zer diren jakitea,

emozioak kudeatzen ikastea, haurrei beren emozioetan laguntzeko tresnak eskuratzeta...".

Hitzordurako gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskura ditzakezue. Plaza-kopurua mugatua izango dela ohartarazi dute.

Treba gurasoak egitasmoa, Aldundiaren esanetan, "tresna arina eta eraginkorra izan nahi du, hainbat eragileren lankidetzaren bidez, guraso izateari dagokion ezagutza lurralde osoan transmititzeko. Hazieraren eremu hori hain aldakorra izanik, gainera, bizi eta malgua izan nahi du, unean uneko errealitatera eta eskaerara egokitu ahal izateko".

Hamaika gai

Ikasturte honetan martxan dagoena proiektu honen hirugarren edizioa da. Iaz, 103 hitzaldi eta tailer antolatuta zituzten Gipuzkoako 48 udalerritan, tokian tokiko udal, guraso elkarte eta eragile gehiagorekin lankidetzan. "Guztira, 2.493 gurasok hartu zuten parte, eta beren batez



Foru Aldundiko Gazteria sailaren esanetan, Treba Gurasoak "gurasotasun positiboan oinarritutako eskaintza pedagogikoa da".

besteko balorazioa oso ona izan zen, 9,20koa hain zuzen ere", Foru Aldundiaren esanetan. Halere, parte hartzaileek iaz eginiko ekarpenetatik aldaketak txertatu dituzte aurtengoan. Izan ere, "950 gai-proposamen inguru" egin dituzte gurasook eta hauek ere kontuan hartu ditu Aldundiak.

"SEXUALITATEA, PANTAIEN ERABILERA EDOTA BULLYING EGOERAK LANDUKO DIRA AURTENGOAN"

Gai-zerrenda honetan daude, aurtengoan Gipuzkoako udalerrietako hitzaldietan ahotan hartuko diren honako hauek: sexualitatea, adimen emozionala, jokabide-menpekotasunak, pantailen erabilera, berdintasuna, osasun mentala, bullying egoerak, familiako gatazkak, harreman sanoak, substantzien kontsumoa, komunikazioa familian, pornografia, arauak eta mugak, autoestimua, lehen sorsopenak...

Usurbilen ere egin ziren saiook iaz; "famiako gatazkak eta estresa kudeatzeko pilulak" eta "arauak eta mugak familian. Nola ezarri era asertibo batean" izeneko saioak egin ziren Potxoenean.

KzGunea arratsalde zabalduko dute martxoan

Otsaila amaierara arte, hilaren 29ra arte goizez zabalduko dute KzGunea, 9:00-13:00 artean, martxoan 16:00-20:00 artean. Hurrengo hilabeterako ikastarook iragarri dituzte:

- Martxoak 1-6, 16:00-18:00 "PC, teklerua eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu".

- Martxoak 7-20, 16:00-18:00 "Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".
- Martxoak 21, 16:00-18:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

Informazio gehiagorako:
943 023 684
tutor.usurbil@kzguna.net

Mattin ilustratzaileak 'Handantza' aurkeztuko du datorren astean

Iñaki Martiarena Mattinek iaz Usurbilen egindako egonalditik sortutako komikia aurkeztuko du otsailaren 23an 19:00etan Sutegin. Euskal kultura eta sorkuntza sustatzen dituen Udalbiltzaren Geuretik Sortuak proiektuaren baitan bideratu du 'Handantza'. "Nora

gaztea Donejakue bidea egiten ari da, oinez. Abenturak bizitzeko irrikaz dago. Usurbilera iristean, herria ezagutzeko aukera izango du: ondarea, ibaia, herritarrak... Bizitzako aberastasunaz ohartuko da". Hortxe 'Handantza'-ren abiapuntua.



Udaleko eta Urbilgo ordezkariak, akordioaren berri ematen.

Urbil merkataritza-gunearen hainbat altzari berrerabiliko ditu Udalak

Urbil berritzen ari diren honetan, egoera onean dauden altzariak Udalari dohaintzan ematea erabaki dute.

Udaletik aditzera eman dutenez, "altzariak udalari lagata, Garapen Jasangarrirako 12. Helburua babestea izan du Urbilek helburu, ekoizpenari eta kontsumo ardura-

tsuari dagokiona, ondasun horien bizitza erabilgarria luzatuz eta ekonomia zirkularra sustatuz".

Udalak ere urte asko daromatza hondakinen kudeake-

ta arduratsua lantzen, eta zentzu horretan, Urbilek altzariak eskaini zizkionean ez zuen zalantzarik izan, eta berehala onartu zuen.

"Txirikordara bideratuko da, besteak beste"

Dohaintzan jasotako altzariok "herriko ekipamendu publikoetan banatzeko asmoa du" Udalak. Momentuz, zera erabaki dute; "Txirikorda belau-naldi arteko etxebizitza komunitariora bideratzea lehetsi da, eta hango beharrak asetakoan, gainerako ekipamenduetara joko dute". Urbilen aldetik, merkataritza-gunea berritzearekin batera, "praktika arduratsuak" sustatu nahi dituztela nabarmendu dute. "Pozik gaude dohaintza honek komunitatean izango duen eraginarekin: aurrerantzean ere guztiontzako etorkizun kontziente eta jasangarriagoa sustatzen duten ekimenetan lankidetzan jarraitzeko asmoa dugu", adierazi du Urbilgo gerente Leyre Lobatok.

Nafarroara garraiatu-ko libixiatuen gaiari lotutako agerraldi eskaera

Urte amaieran jakin zenez, Zubietako erraustegitik Nafarroako Artaxoako konpostatze plantara libixiabiaturak garraiatzen aritu dira. Berriki, hango gobernu ingurumen kontseilari Jose Maria Aierdik planta hau behin-behinean itxi behar izan zuela berri eman zuen, "besteak beste, Zubietako instalazioetatik kode okerrarekin bidalitako hondakinak baimenik gabe hartzeagatik". Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkari den Euskal Herria Bilduren taldeak Nafarroako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Jose Maria Aierdiren agerraldia eskatu du, "Zubietako plantatik Artaxoako plantara bidalitako hondakinen eta berauen kudeaketaren inguruan azalpenak eman ditzan".

Agerraldi eskaera hau, ostiralerako, otsailaren 16rako dago iragarria, eta Jasangarritasun Batzordean landuko da. 12:00etan hasiko den saioa zuzenean jarraitu ahaliko da Batzar Nagusien web ataritik.

Haizeak eragindako ezbeharra Zubietan

Astelehen goizean, alerta larra indarrean jarri zuten goizeko 9:00etan hasi eta eguerdiko 15:00ak arte. Zoritarrez, haizeteak ezbeharrik eragin zuen, Zubietan hain zuzen. Hipodromoko zubia zeharkatu eta Zubietako kaxko aldera doan bideko lehen bihurtzean zuhaitz bat erori eta pertsona bat harrapatu zuen azpian. Donostiako suhiltzaileak, DYA eta Ertzaintza bertaratu ziren.



Zuhaitz baten erorketak pertsona bat zauritu zuen Zubietan. DONOSTIAKO SUHILTZAILEAK

Aitzaga elkartearen 30. urtemugako hitzordua

'Aitzaga 30 urtez hegaldian 11 istorio' solasaldia antolatu du Aitzagak, ostegun honetarako, otsailaren 15erako, arratsaldeko 18:30ean elkartean bertan.

Antxeta
 TABERNA
 egunero irekitzen dugu!
 eguneko menua · asteburuko menua
 oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
 paellak enkarguz!
 943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENE taberna
 Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
 taberna
Pintxo Bereziak
 943 37 10 42

Zuen
 publizitatea
 hemen
 943 360 321
 publizitatea@noaua.eus



Mikel Arroyo eta Jose Mari Etxebeste, txapelketa irabazi berritan.

Gipuzkoako binakako bola txapelketan, jaun eta jabe

Mikel Arroyo usurbildarrak bikote sendoa osatu du Jose Mari Etxebeste Villabonako jokalariarekin batera.

Mikel Arroyo usurbildarra eta Jose Mari Etxebeste villabonarra bigarren urtez jarraian gailendu dira Gipuzkoako

binakako bola txapelketan. Otsailaren 4an jokatu ziren finalaurrekoak eta finala Aia-ko bolatokian. Emakumez-

koetan berriz, Rosa Santos (Hernani)-Martxeli Kanflanka (Ereñozu) bikotea nagusitu zen.

Lehia estua

Aiako partidaren aurretik, hiru kanporaketa jokatu ziren Seguran, Urnietan eta Zerainen. 29 bikote aritu dira aurtengoan eta lehen hamarrak sailkatu ziren finalaurrekoetarako.

Aiako finalaurrekoetan, lehen laurak igaro ziren finalera. Azken norgehiagoka erabakigarrian, zortzi birlako alde atera zuten Mikel Arroyok eta Jose Mari Etxebestek.

Sailkapena

1. Mikel Arroyo (Usurbil)-Jose Mari Etxebeste (Villabona).
2. J.Ormazabal-P. Ormazabal (Gabiria).
3. Ostolaza-Fernandez (Zarautz).
4. Alustiza-Izagirre (Segura).

HH, LH eta DBH ikasleentzako aurrematrikulazio epea zabalik da

Otsailaren 7an ireki zen 2024-25 ikasturterako aurrematrikulazio kanpaina eta otsailaren 23ra arte egongo da zabalik.

Informazio gehiagorako:

Zubietako eskola

- 943 372 931
- 012219aa@hezuntza.net
- zubietaa@eskolatxikiak.org

Aginagako eskola

- 943 372 044
- aginaga.eskolatxikiak.org

Udarregi ikastola

- 943 36 12 16
- usurbil@ikastola.eus

Futbol partidak

Otsailak 17, larunbata

Haranen

- 9:00 Kadete mutilak: Usurbil FT B-Astigarragako Mundarro FKE B
- 10:45 Kadete neskek: Usurbil FT A-Aitzgorri FK
- 12:20 Jubenilak: Usurbil FT B-Euskalduna Andoaindara SD C
- 15:45 Preferente neskek: Usurbil FT-Dunboa Eguzki
- 18:00 Preferente mutilak: Usurbil FT-Mariño CD

Haranetik kanpo

- 11:30 Infantil mutilak, Irungo San Jose Obreron: Dunboa Eguzki B-Usurbil FT

- 12:15 Infantil neskek, Donostiko Mundaizen (F8): Martutene KE-Usurbil FT
- 13:45 Kadete mutilak, Irungo Ugalden: Mariño CD B-Usurbil FT A
- 19:25 Erregionalak, Donostiako Berion: Antigua Luberri-Usurbil FT B

Otsailak 18, igandea

Haranetik kanpo

- 12:00 Kadete neskek, Antzuolako Eztalan: Bergara KE-Usurbil FT B
- 19:30 Preferente jubencilak, Irungo San Jose Obreron: San Marcial B-Usurbil FT A

Eskubaloit partidak

Otsailak 17, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: -Usurbil KE B
- Eibar Eskubaloia A
- 11:15 Infantil neskek: -Usurbil KE A
- Zerbimek Bergara KE
- 16:00 Kadete neskek: -Usurbil KE
- Ingoiu Arrasate
- 17:45 Jubenil neskek: -Usurbil KE
- Ereintza

Boleibol partidak

Otsailak 17, larunbata

- 13:00 Infantilak: Udarregi-Ipar Titanak.

Pilota partidak

Otsailak 16, ostirala

- 17:45 Infantilak, 2. maila: -Pagazpe (Alejo-Alejo)
- Oiarpe 3
- Kadeteak, 3. maila: -Pagazpe (Indakoetxea-Jauregi)
- Oiarpe 1

Otsailak 17 larunbata

- 11:30 Kadeteak, 1. maila: -Pagazpe 1 (Alejo-Aburuza)
- Zazpi Iturri

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiarene auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez aritzeko 616273785.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. Orduka zein internazko aritzeko disponibilitatearekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon astean bost

orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurlaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

Astean zehar zein asteburuetan haurrek zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

BESTELAKOAK

Belarritako bat aurkitu genuen kalean, abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu honako telefono zenbakira: 607 168 352.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 15	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 16	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 18	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astelehena, 19	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Asteartea, 20	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Asteazkena, 21	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Osteguna, 22	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 23	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 24	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 25	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Juan Jose Dabila Trenado

Otsailaren 6an hil zen Santuenean, 73 urterekin.



Julia Harto Reyes

Otsailaren 9an hil zen, 89 urterekin



Maria Luisa Garmendia Iraola

Otsailaren 12an hil zen, 81 urterekin.



Juan Mari Arruti Santamaria

Otsailaren 11n hil zen, 84 urterekin.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 16

USURBIL 2. Xake Topaketa

LH 1, 2 eta 3. mailakoei zuzendua.
17:00 Sutegi udal liburutegian.USURBIL NOAUA! Kulturaldia:
'Bizkarsoro' filma

19:00 Sutegin.



Ostiral honetako topaketa LH 1, 2 eta 3 mailakoentzat da. Irudia, artxibokoa.

LARUNBATA 17

USURBIL NOAUA! Kulturaldia:
Tapia eta Leturiaren
kontzertua10 muskariz osatutako taldea
lagun izango dute.
22:30 Aginagako Eliza Zaharrean.

IGANDEA 18

USURBIL NOAUA! Kulturaldia:
'Ztandap' binakako
bakarrizketaMirari Martiarena eta Idoia
Torregarai umoregileek ikuskizun
berria aurkeztuko dute.
18:00 Sutegin.

ASTELEHENA 19

USURBIL Jai Batzordearen
bileraUsurbilgo 2024ko jaiak antolatzen
segitzeko bigarren bilera.
18:30 Potxoenean.II. Xake Topaketa
udal liburutegianIazko estreinako edizioko
arrakastaren ondotik, 2. Xake
Topaketa antolatu du Sutegi
udal liburutegiak otsailaren
16 (LH 1,2 eta 3 mailakoentzat)
eta 23rako (LH 4. mailatik
gorakoentzat), 17:00etatik
aurrera.Bi hitzorduotarako izena
Sutegin bertan eman beharko
da. Breogan Estevez liburu-zainak gidatuko ditu topake-
tak.

Otsailak 16, ostirala

- 17:00, udal liburutegian.
- LH 1, 2 eta 3. mailakoentzat.
- Oharra: Taldea oso handia baldin bada, martxoaren 1ean beste saio bat egingo dute. Bi saioak adinaren arabera antolatuko dira.

Animalien babeslekurako material bilketa

Udarregiko DBH 2ko ikasleek abiarazi duten proiektu komunitarioaren baitan, Animalien Babeslekua laguntzeko lanketa betean dira. Testuinguru horretan, gune hau laguntzeko material bilketa bideratu dute egunotan, besteak beste, Sutegi udal liburutegian edota Kiroldegian jarri dituzten kaxen bidez. Honako hauxe aritu dira biltzen: ogi zaharrak, egunkariak, mantak eta maindireak, kuxinak, koltxoi txikiak, katuentzako jostailuak...

EHko mus
txapelketako
sailkapen
proba

Udalerrri mailako sailkapen proba otsailaren 23an jokatu da, gaueko 22:00etan hasita Aitzaga elkarrean. 21:30-22:00 artean bideratu behar da izen-ematea. Hitzordua Aginaga eta Saizar sagardotegiak eta Bruño marisako etxeak lagunduko dute. Sagardotegi bina lagunentzako otorduak eta 10 kilo txangurru eskainiko dituzte. Usurbilen sailkatutako bikoteek Gipuzkoako kanporaketa jokatu dute martxoaren 9an, 15:00etan hasita Iruan. Han nagusitzen direnek martxoaren 23an Zuberoako Alzain jokatu den final nazionalera igaroko dira. Bi milatik gora bikoteek parte hartzen dute urtero ekimen honetan. Hamabosgarren edizioan, 50.000 euro banatu dituzte saritan Euskal Herriko Mus Federazioak. Informazio gehiago, ehmus.eus atarian.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTA PAX 7, 650 31 31 91

Inaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

USURBIL DÖNER KEBAB

843 675 265
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

KULTURALDIA 2024

OTSAILAK 16-25



BIZKARSORO Pelikula emanaldia eta solasaldia
otsailak 16, **OSTIRALA**, 19:00 Sutegi

TAPIA ETA LETURIA Kontzertua
otsailak 17, **LARUNBATA**, 22:30 Aginagako Eliza Zaharrean



ZTANDAP Binakako bakarriketa
otsailak 18, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi

TOTO Antzerkia
otsailak 24, **LARUNBATA**, 19:00 Sutegi



ETXE BAT Poesia errezitaldi musikatua
otsailak 25, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi



Usurbilgo Udala

noqua

Sarrerak: alde zuzenean salgai usurbilkultura.eus plataforman eta NOAUA!ko egoitzan.



ENERGIA AHOLKULARITZA ZERBITZUA



Usurbilgo Udala

Energiari buruzko zalantzak
argituko dizkizugu, doan:
ekarri argindarraren
eta gasaren fakturak, eta
egokiak diren ikusiko dugu

Hartu hitzordua!

943 37 19 51 / iromero@usurbil.eus